



TRANSKRIPZIOA

Unax-Kaixo!Egun on!

Javi-Berdin!

Unax-Ni Unax Lopez naiz eta nire alboan Javi Lopez daukat.Lehenik eta behin,zer moduz?

Javi-Ondo ,ondo esan beharko deu.Eta zu?

Unax-Ebai

Unax-Bueno ba dakizun bezala, elkarrizketa bat prestatu dizugu zenbait galderarekin, 2050-eko zumaiari begira.Ea zer diozun!

Unax-1.Zure ustez gure ekonomia iturria itsasoa izaten jarraituko du?

Javi-Ba ez dut uste, gero eta lantegi gehiago daude era guztitako lanak egiten inguruan, ordun pentsatzen det aldatu egingo dala situazioa.

Unax-2.Klima aldaketarik egongo al da zure ustez?

Javi-Seguru!Gaurko berrietan azaldu dute, 3 urte dazkaula aldatzeko gure bizitza ingurumena errespetatzen, edo ezingo diogu egin bizitza normal bat munduan.

Unax-3.Zumaiaren azalera zabalduko dela uste al duzu?

Javi-Zumaiak berez eztaka azalera handia.Konfinamentuan konfirmatu giñan eta irterak utzi zizkigutenean konturatu giñan,baina egia esanez proiektu gutxi daude zumaian bertan azalera handitzeko,baina bai inguruko auzotan.

Unax-4.Zientifikoek diote urtero itsasoak zumaia erasotzeko aukera gehio daudela.Zer diozu honi begira.

Javi-Ba egitan ari dira.Urtean zehar bi marea handi daude eta azkenengotan ikusten da hurbiltzen ai dala gero eta gehio , arrisku gehio dao urtero, laister Venezian bezela egongo gara.

Unax- 5.Gaur egungo garraioa mantendu ala aldatu egingo dela uste duzu?

Javi-Derrigorrez aldatu egin beharko da gutxio kutsatzeko ingurumena eta hidrogeno elektriko edo energia bererabilgarria erabili beharko da bestela ingurumena suntsituko dugu.

Unax- 6.Zumaiako biztanleria handitu ala txikitu egingo dela uste duzu?

Javi-Handituko da segurunez.Gero eta gehio etortzen da zumaira , azkenengo urtetan filmatan eta serietan azaldu den bezala, gero eta gehio etortzen da eta esan behar deu herri polita dakaula.

Unax-Ongi da!

Unax- 7.Azkenik gizartearen zer aurrerapen gustatuko litzaizuke egotea?

Javi-Ba egia esan, denak konsziente izatea ingurumena zaindu behar dugula eta tolerante izaten, gaur egunean dana keja izaten da eta laguntza gutxi.

Unax-Oso ondo Javier!Milla esker.Agur!

Javi-Eskerrikasko zuri rebai!